Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko apirilaren 25a, asteartea — 78 — Martes, a 25 de abril de 2023



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*188 LI/2023 Foru Agindua, apirilaren 16koa, 2023ko laguntza hauen deialdia onartzekoa: nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko Planaren barruan, inbertsio proiektuak gauzatzeko laguntzak, azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuaren arabera eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation funtsak).*

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak 2023ko apirilaren 16an ondorengo agindua eman du:

Diputatuen Kontseiluaren 2022ko apirilaren 26ko Erabakiaren bidez, ondoko oinarri arautzaileak onartu ziren: nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko Planaren barruan, inbertsio proiektuak gauzatzeko laguntzak ematekoak, azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuaren arabera eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation funtsak).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren 2023ko aurrekontuetan, adierazitako dirulaguntzetarako baliabide ekonomikoak 220.397,58 euro izango dira. Horrenbestez, foru agindu honen bidez aipatutako dirulaguntzen 2023ko deialdia onartzen da.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota daude.

Laguntza programa horren deialdia onartzea Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari dagokio, laguntzaren zenbatekoa kontuan hartuta, hala ezartzen baitu 40.4.b) artikuluan eta xedapen gehigarrian (abenduaren 23ko 9/2008 Foru Arauaren 14. Xedapen Gehigarriak aldatutakoan) Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak.

Hori horrela, foru diputatu honek,

EBAZTEN DU

*Lehenengo.* Ondoko dirulaguntzen 2023ko deialdia onartzea: nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko Planaren barruan, inbertsio proiektuak gauzatzeko laguntzak ematekoak, azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuaren arabera eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation funtsak); foru agindu honen eranskinean dago jasota.

*Bigarren.* Deialdirako 220.397,58 euroko gastua baimentzea, kontu sail honen kargura: 5.0440.400.770.00.10.2024.

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirula-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Orden Foral 188 LI/2023, de 16 de abril, por la que se aprueba la convocatoria 2023 de ayudas a la ejecución de proyectos de inversión dentro del Plan de impulso de la sostenibilidad y competitividad de la agricultura y la ganadería, conforme al Real Decreto 948/2021, de 2 de noviembre, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (Fondos Next Generation).*

El Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, con fecha 16 de abril de 2023 ha dictado la siguiente Orden:

Mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de abril de 2022 se aprobaron las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas a la ejecución de proyectos de inversión dentro del Plan de impulso de la sostenibilidad y competitividad de la agricultura y la ganadería, conforme al Real Decreto 948/2021, de 2 de noviembre, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (Fondos Next Generation).

Los recursos económicos previstos para el pago de estas ayudas en los presupuestos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural de la Diputación Foral de Gipuzkoa para el ejercicio 2023 ascienden a un total de 220.397,58 euros. Mediante la presente orden foral se aprueba la convocatoria 2023 de las citadas ayudas.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

De conformidad con lo establecido en el artículo 40.4.b) y en la disposición adicional (modificada por la Disposición Adicional 14.ª de la Norma Foral 9/2008, de 23 de diciembre) de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde a este diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, por razón de la cuantía, la aprobación de la convocatoria de ayudas.

En su virtud, este diputado foral

RESUELVE

*Primero.* Aprobar la convocatoria correspondiente al ejercicio 2023 de las ayudas a la ejecución de proyectos de inversión dentro del Plan de impulso de la sostenibilidad y competitividad de la agricultura y la ganadería, conforme al Real Decreto 948/2021, de 2 de noviembre, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (Fondos Next Generation); dicha convocatoria se acompaña como anexo a la presente orden foral.

*Segundo.* Autorizar un gasto de 220.397,58 euros, para hacer frente a la convocatoria, con cargo a la partida presupuestaria 5.0440.400.770.00.10.2024.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por

EK\CV GAO-I-2023-02801

guntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2023ko apirilaren 17a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (2801)

ERANSKINA

*2023ko ekitaldiari dagokion deialdia, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko Planaren barruan, inbertsio proiektuak gauzatzeko laguntzak ematekoa, azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuaren arabera eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (Next Generation funtsak).*

1. *Oinarri arautzaileak.*

Deialdi honetako dirulaguntzak Diputatuen Kontseiluaren 2022ko apirilaren 26ko Erabakiaren bidez (2022ko apirilaren 29ko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 80 zk.) onartutako oinarrietan arautzen dira, eta azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuan jasotakoen osagarri dira. Errege dekretu horren bidez, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna sustatzeko Planaren (III) barruan inbertsio proiektuak gauzatzeko estatu laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, betiere Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan.

2. *Aurrekontu kredituak.*

Deialdi honetarako aurrekontu zuzkidura 220.397,58 eurokoa da, 5.0440.400.770.00.10.2024 aurrekontu partidaren kargura, honela banatuta laguntza programetan (dagokion estatu laguntzaren erreferentzia adierazita):

— Abeltzaintzan simaurrak kudeatzeko sistemetan inbertsioak egiteko laguntza programa SA.64682 (2021/XA): 110.825,58 €.

— Berotegien eraldaketa integralari eta modernizazioari laguntzeko programa SA.64328 (2021/N): 30.593,00 €.

— Energia eraginkortasunean eta energia berriztagarrietan (biogasa eta nekazaritzako biomasa) inbertsioak egiteko laguntza programa SA.100569 (2021/X): 21.177,00 €.

— Nekazaritza eta abeltzaintza sektorean doitasunezko nekazaritza eta 4.0 teknologiak aplikatzeko laguntza programa SA.64683 (2021/XA): 57.802,00 €.

3. *Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

Laguntza eskaerak 30 egun baliodunеko epean aurkeztu ahal izango dira, deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Eskaerak, erantsi beharreko gainerako dokumentazioarekin batera, nahitaez aurkeztuko dira Internet bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bitartez (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarira sartuz sinadura elektronikoaren edo pasahitz operatiboa erabilita, horretarako eskuragarri dagoen berariazko formularioa baliatuta. Eskaerak eta dokumentazio osa-

el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia/San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, los particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 17 de abril de 2023.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (2801)

ANEXO

*Convocatoria 2023 de ayudas a la ejecución de proyectos de inversión dentro del Plan de impulso de la sostenibilidad y competitividad de la agricultura y la ganadería, conforme al Real Decreto 948/2021, de 2 de noviembre, en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (Fondos Next Generation).*

1. *Bases reguladoras.*

Las ayudas de esta convocatoria se rigen por las bases reguladoras aprobadas mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral de 26 de abril de 2022 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 80, de 29 de abril de 2022), que complementan las contenidas en el Real Decreto 948/2021, de 2 de noviembre, por el que se establecen las bases reguladoras para la concesión de ayudas estatales destinadas a la ejecución de proyectos de inversión dentro del Plan de impulso de la sostenibilidad y competitividad de la agricultura y la ganadería (III) en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

2. *Créditos presupuestarios.*

La dotación presupuestaria para esta convocatoria asciende a 220.397,58 euros, con cargo a la partida presupuestaria 5.0440.400.770.00.10.2024, distribuidos de la siguiente manera en los diferentes programas de ayuda (con la referencia de ayuda de estado correspondiente):

— Programa de apoyo a las inversiones en sistemas de gestión de estiércoles en ganadería SA.64682 (2021/XA): 110.825,58 €.

— Programa de apoyo a la transformación integral y modernización de invernaderos SA.64328 (2021/N): 30.593,00 €.

— Programa de apoyo a las inversiones en eficiencia energética y energías renovables (biogás y biomasa agrícola) SA.100569 (2021/X): 21.177,00 €.

— Programa de apoyo para la aplicación de agricultura de precisión y tecnologías 4.0 en el sector agrícola y ganadero SA.64683 (2021/XA): 57.802,00 €.

3. *Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes de ayuda podrán presentarse durante 30 días hábiles desde la fecha de publicación de la convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Las solicitudes, junto con el resto de la documentación que deba acompañarlas, se presentarán obligatoriamente vía internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones mediante la firma electrónica o la clave operativa, utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presenta-

EK\CV GAO-I-2023-02801

garria 23/2010 Foru Dekretuak, irailaren 28koak, Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duenak, aurreikusitakoaren arabera aurkeztuko dira.

Deialdiaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak egoitza elektronikoan egongo dira eskuragarri (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

*4. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

Eskaerarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen inprimakiaren arabera (https://egoitza.gipuzkoa.eus), aurkeztu beharko da onuradun izaera lortzeko inongo debekurik ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena, 3/2007 Foru Arauak, 2007ko martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Eskaeraren gutxieneko edukia 2021eko azaroaren 2ko 948/2021 Errege Dekretuaren IV. eranskinean ezarritakoa izango da.

Gainerakoan, baldintzak betetzen direla egiaztatzeko eta laguntzen zenbatekoa zehazteko, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departementuak honako hauek egiaztatuko ditu:

— Zerga betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzea.

— Gipuzkoako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatzea.

Horretarako, departamentuko datu baseak kontsultatuko dira edo datu horiek zuzenean bilduko dira datu horiek ematen dituzten erakundeetatik; hori ezinezkoa bada edo eskatzaileak horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dagokion dokumentazioa. Hori guztia, 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28.2 artikuluan jasotakoaren arabera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1.e) artikuluarekin lotuta (pertsona fisikoen babesari buruzko Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez), eta 3/2018 Lege Organikoak, abenduaren 5ekoak, Eskubide Digitalak Bermatzekoak, zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

*5. Argitaratzea.*

Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 45.1.b) artikuluan ezarritakoari jarraituz, dirulaguntzei buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Argitalpen horrek banakako jakinarazpena ordeztuko du; eta jakinarazpena lege ondorio guztietarako egintzat hartuko da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

ción de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

La información de la convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica (https://egoitza.gipuzkoa.eus).

*4. Documentación a presentar.*

La solicitud, conforme al formulario disponible en la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), incluirá la declaración responsable de no hallarse incursa la persona solicitante en ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de persona beneficiaria establecidas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El contenido mínimo de la solicitud será el establecido en el anexo IV del Real Decreto 948/2021 de 2 de noviembre.

Por lo demás, para la acreditación del cumplimiento de los requisitos y la determinación de la cuantía de las ayudas, el Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprobará:

— El cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

— La inscripción en el Registro de Explotaciones Agrarias de Gipuzkoa.

A tal fin, se consultarán las bases de datos obrantes en el departamento o se recabarán los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos; si ello no fuera posible o la persona solicitante se opusiera a ello, deberá presentar ella misma la documentación correspondiente. Todo ello de conformidad con lo previsto en el artículo 28.2 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en relación con el artículo 6.1.e) del Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos; así como a lo establecido en la disposición adicional octava de la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales.

*5. Publicación.*

Al amparo de lo dispuesto en el artículo 45.1.b) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la resolución de la convocatoria será objeto de publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sustituyendo dicha publicación a la notificación individual y entendiéndose efectuada ésta a todos los efectos legales desde

EK\CV GAO-I-2023-02801

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

**Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren jasangarritasuna eta lehiakortasuna bultzatzeko laguntzen eskaera. (Next generation)**

**Solicitud de Ayudas para el impulso de la sostenibilidad y competitividad de la agricultura y la ganadería. (Next Generation)**

| USTIATEGIAREN DATUA / DATOS DE LA EXPLOTACIÓN | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **Izen-abizenak edo izen soziala / Nombre y apellidos o razón social** | | | | **IFZ/IFK NIF/CIF** | |
| **Helbidea / Domicilio** | | **Posta kodea / Cód. postal** | | **Herria / Municipio** | |
| **Ustiategiaren kodea / Codigo de explotación** | | | | | |

| ESKATUTAKO LAGUNTZA / AYUDA SOLICITADA | |
|---|---|
| **Hautatu bat/ Seleccionar una** | **Azpineurria / Submedida** |
| | Abeltzaintzan simaurrak kudeatzeko sistemetan inbertsioak egiteko laguntza programa / Programa de apoyo a las inversiones en sistemas de gestión de estiércoles en ganadería. |
| | Berotegien eraldaketa integralari eta modernizazioari laguntzeko programa/ Programa de apoyo a la transformación integral y modernización de invernaderos. |
| | Energia eraginkortasunean eta energia berriztagarrietan (biogasa eta nekazaritzako biomasa) inbertsioak egiteko laguntza programa/ Programa de apoyo a las inversiones en eficiencia energética y energías renovables (biogás y biomasa agrícola). |
| | Nekazaritza eta abeltzaintza sektorean doitasunezko nekazaritza eta 4.0 teknologiak aplikatzeko laguntza programa/ Programa de apoyo para la aplicación de agricultura de precisión y tecnologías 4.0 en el sector agrícola y ganadero. |

## ERANTZUKIZUNEKO AITORPENA

Eskatzaileak adierazten du:

1. Laguntzak jasotzeko ezarritako baldintzak (2. oinarri arautzailean aurreikusitakoak) betetzen dituela, horien artean krisian ez izatearena, 948/2021 Errege Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.
2. Baimena ematen diola Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuari erakunde eskudunei betekizunak betetzen dituela egiaztatzeko eta laguntzen zenbatekoa zehazteko beharrezkoa den informazioa eskatzeko.
3. Laguntzen oinarrietan aipatzen diren egiaztagiriak dituela, eta Administrazioaren eskura jarriko dituela, hala eskatuz gero, eta konpromisoa hartzen duela laguntza jasotzearen ondoriozko betebeharrak betetzeko.
4. Betetzen dituela Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan eska daitezkeen betebeharrak, «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa barne, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 2. artikuluaren 6) apartatuan ezarritakoaren ildotik, eta diruz lagun daitezkeen jarduerek ez dutela eragin kaltegarririk izango biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta berreskuratzeko ingurumen helburuan.
5. Betebeharrak ezagutzen dituela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren arabera: Europako kontrol organoen kontrolen mende egotea (Batzordea, Europako Kontuen Auzitegia, Iruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa -OLAF-, eta Europako Fiskaltza). Dokumentazioa kontserbatzeari buruzko arauak. Informazioari eta komunikazioari buruzko arauak. Iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko arauak.

## DECLARACIÓN RESPONSABLE

El/la solicitante declara:

1. Que cumple los requisitos establecidos para acceder a las ayudas (previstos en la base reguladora 2ª), entre ellos el de no encontrarse en crisis según se establece en el artículo 6 del Real Decreto 948/2021.
2. Que autoriza al Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural para recabar de los organismos competentes la información acreditativa del cumplimiento de los requisitos y la necesaria para la determinación de la cuantía de las ayudas.
3. Que dispone de la documentación acreditativa a que hacen referencia las bases de las ayudas, que la pondrá a disposición de la Administración en caso de serle requerida, y que se compromete al cumplimiento de las obligaciones derivadas de la percepción de la ayuda.
4. Que cumple las obligaciones exigibles en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, incluido el principio de «no causar un perjuicio significativo al medio ambiente» en el sentido establecido en el apartado 6) del artículo 2 del Reglamento (UE) 2021/241 del Parlamento europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021, y de que las actuaciones subvencionables no incidirán negativamente sobre el objetivo medioambiental de la protección y recuperación de la biodiversidad y los ecosistemas.
5. Que conoce las obligaciones, de acuerdo con lo establecido en el Reglamento (UE) n.º 2021/241, del Parlamento Europeo y del Consejo de 12 de febrero de 2021): Sujeción a los controles de los órganos de control europeos (Comisión, Tribunal de Cuentas Europeo, OLAF y Fiscalía Europea). Normas sobre conservación de la documentación. Normas sobre información y comunicación. Normas de lucha contra el fraude y corrupción.

EK\CV GAO-I-2023-02801

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural

**IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLANA, BERRESKURAPEN, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANAK ESKATZEN DUENA**

Laguntzen eskatzaileek Europako, estatuko eta autonomia erkidegoko araudian ezarritako iruzurraren aurkako neurri guztiak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

**Iruzurrezko jarduketak jakinarazteko sistema**

- Inplikatutako eragile guztiei eta herritar guztiei jakinarazten zaie IGAEren kanal publikoa badagoela (https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx) iruzurrezko portaeren salaketak jakinarazteko hain zuzen.
Kanal horretan herritar guztiek parte har dezakete, baita neurrian esku hartzen duen edozein pertsona fisikok edo juridikok ere.

- Tartean diren eragile guzti-guztiei eta herritar guztiei dagozkien gardentasun atarien berri ematen zaie; Irekia delakoan, Eusko Jaurlaritzaren kasuan, eta foru aldundien eta udalen webgune korporatiboetan.

- Tartean diren eragile guztiei eta herritar guztiei edozein motatako iradokizunak, kexak edo salaketak modu pribatuan egiteko bide arautuen berri ematen zaie. Eusko Jaurlaritzaren kasuan, edonork jo dezake modu pribatuan Jaurlaritzara eta Etika Batzordera (https://www.irekia.euskadi.eus/es/departments/78/proposals). Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak era guztietako kexak eta iradokizunak igortzeko prozedurak ezarrita ditu bere webgunean.

- Tartean diren eragile guztiei eta herritar guztiei Arartekoaren zereginaren berri ematen zaie. Arartekoaren eginkizun nagusia da herritarrei arreta ematea Administrazioaren jarduera oker edo irregularrei buruz planteatzen diren kexa, eskaera edo kontsultei dagokienez, eta kexa horiek prozedura baten arabera izapidetzea; prozedura horretan, dagokion administrazioak bere jokabidearen berri eman beharko du.

**PLAN MEDIDAS ANTIFRAUDE EXIGIDO POR EL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA**

Las personas o entidades solicitantes de las ayudas se comprometen a cumplir con todas las medidas antifraude establecidas en la normativa europea, nacional y autonómica.

**Sistema de comunicación de posibles actuaciones fraudulentas**

- Se informa a todos los agentes implicados y al conjunto de la ciudadanía sobre la existencia del canal público de la IGAE (https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/es-ES/snca/Paginas/ComunicacionSNCA.aspx) para comunicar denuncias de comportamientos fraudulentos.
En dicho canal puede participar toda la ciudadanía, así como cualquier persona física o jurídica interviniente en la medida.

- Se informa a todos los agentes implicados y al conjunto de la ciudadanía sobre la existencia de los correspondientes portales de transparencia; en Irekia en el caso del Gobierno Vasco y en las webs corporativas de las Diputaciones Forales y Ayuntamientos.

- Se informa a todos los agentes implicados y al conjunto de la ciudadanía sobre la existencia de vías regladas para emitir cualquier tipo de sugerencia, queja o denuncia de modo privado. En el caso del Gobierno Vasco, cualquier persona puede dirigirse privadamente al gobierno y a la Comisión de ética (https://www.irekia.euskadi.eus/es/departments/78/proposals).
Asimismo, la Diputación Foral de Gipuzkoa tiene establecidas en sus páginas web, los procedimientos para emitir quejas y sugerencias de todo tipo.

- Se informa a todos los agentes implicados y al conjunto de la ciudadanía sobre el papel del Ararteko cuyo cometido principal es atender a los ciudadanos y ciudadanas en relación con las quejas, demandas o consultas que planteen sobre actuaciones incorrectas o irregulares de la Administración, y tramitar dichas quejas conforme a un procedimiento en el que a la administración concernida se le piden cuentas sobre su proceder.

EK\CV GAO-I-2023-02801